

2020/21 IKASTURTE HASIERA-PROZEDURA

SARRERA

COVID 19ak baldintzatutako momentua bizi dugu, bizimodua aldatu digu eta ikasturte berria ere baldintzatuko du. Hori dela eta, ezinbestean ikastolaratze ez ohiko bat definitzen eta antolatzen aritu ginen ekainean eta uztailean zehar. Ikasturtean biziko ditugun agertoki ezberdinak zehaztu eta horien balizko antolaketa egiten, kontingentzia planak egiten, ikasleen sarrera irteerak, eskola ordutegiak, jolas-orduak eta abar zehazten. Ikuspegi orokor batetatik landu dugu ikasle eta familien ikastolara itzulera eta orain, irudikatutako horiek praktikara eramateko formula zehatzak definitu ditugu.

San Benito Ikastolak ikasturte hasiera presentzialaren aldeko apustu irmoa egiten du hezkuntza-maila guztietan; horretarako, segurtasun- eta higiene-neurri egokiak eta beharrezko baliabideak jartzen ari gara.

Ikasturte hasiera honetan ezinbestekoa izango da segurtasuna bermatzeko zenbait neurri errespetatzea. Horregatik, **familiak ikastolarekin lankidetzan** aritzea eskatzen dizuegu, oinarrizko higiene-ohiturak babesteko eta errazteko helarazitako jarraibideekin, hala nola:

- **Ikastolako seinaleak errespetatzea**
- **maskara erabiltzea**
- **eskuak garbitzea**
- **bizikidetzatalde egonkorreko kide izatea**
- **plaza inguruan jende pilaketarik ez sortzea**
- **Ikastolara oinez etortzeko ahalegina egitea**

PREBENTZIO-NEURRI OROKORRAK

1. **Kontaktuak mugatzea:**

Bizikidetzatalde egonkorra (burbuila taldeak) ezarriko dira beste talde batzuekin elkarreraginean aritu gabe, **harremanak mugatzeko eta, kasuren bat gertatuz gero, kontaktuak azkar eta errazago arakatzeko.**

HH0tik LH6 bitartean gela bakoitza talde egonkorra izango da eta, Bigarren Hezkuntzan, maila izango da bizikidetzataldea.

2. **Prebentzio pertsonaleko neurriak:**

a. Ikastolara joan aurretik **etxean bertan tenperatura hartu behar da**, eta ez dira joango sukarra izan (>37°) edo COVID-19rekin bateragarriak diren sintomak dituzten ikasleak, irakasleak eta bestelako profesionalak.

b. Ikastolara sartu aurretik, gorputz-tenperatura ikasle eta langile guztiei hartuko zaie.

c. Egunero, higienezari eta portaerari buruzko prebentzio-neurriak gogorarazteko saioak egingo dira, gela, ikastetxe eta adin bakoitzera egokituta.

d. Derrigorrezko etapako ikasle bat **ikastolara joatea derrigorrezkoa da** osasun-egoera onean badago. Ikasle batek **ez du** ikastolara joan behar egoera hauetan:

- PCR baten edo beste proba diagnostiko molekular baten **emaitzaren zain dagoenean.**
- **Isolamenduan badago**, PCR bidez diagnostikatutako koronabirus-infekzio bat duelako.
- **Berrogeialdian badago**, COVID kasu baieztatu baten kontaktu estua delako.
- Koronabirus bidezko infekzioarekin bateragarriak diren sintomak baditu.

e. Maskara erabiltzea:

- Egunero, ikasle bakoitzari (LH1etik gora), musuko kirurgikoa bat emango zaio gelan; era honetan, ikasle GUZTIAK musuko garbia dutela ziurtatzen dugu. Bakoitzak bere plastikozko zorrotzoa ekarri beharko du etxetik dakarren musukoa gordetzeko.
- Arau orokor gisa, ikastetxeko langile eta ikasle guztiek nahitaez erabili beharko dute espazio guztietan eta une oro.

- Irakasleek maskara erabili behar dute beti, baita bizikidetzat-talde egonkorretan ere.
 - Haur Hezkuntzan, 6 urtera arte, maskara ez da nahitaezkoa izango.
 - Eskola-garraio kolektiboan derrigorrezkoa izango da 6 urtetik gorako ikasle guztientzat, baina, ahal izanez gero, adin horretatik behera ere erabiltzea gomendatzen da. Autobusen barruan ezin izango da maskara kentzea dakarren jarduerarik egin (jatea edo edatea).
- f. Zentroko espazio komunetan pertsonak elkartzea saihestuko da.

Ikasturte hasieran hartutako neurri hauek, aldatu egin daitezke pandemiaren bilakaeraren arabera, eta aipatutako protokoloetan jasotako egoeretara itzul daitezke.

KASUEN KUDEAKETA

Ez dute Ikastolara joan behar COVID-19rekin bateragarriak diren sintomak dituzten pertsonak, ikasle, irakasle zein bestelako langileak izan, ez eta COVID-19ren diagnostikoa jaso ondoren isolatuta daudenek edo etxeko berrogeialdian.

Diagnostikoa egiterakoan:

- a. Ikasle batek **ikastetxetik kanpo** COVIDekin bateragarriak diren sintomak baditu, gurasoak edo tutoreak harremanetan jarriko dira ikastolako zuzendaritzarekin edo tutorearekin, beren osasun-zentroarekin edo Osasun Aholkularitzako Zerbitzuaren erreferentziako telefonoarekin, haien kasua ebaluatu, PCRren eskaera erabaki eta, hala badagokio, etxeko isolamendua adieraz dadin, emaitza jakin arte.
- b. Ikasle **batek ikastolan** COVIDekin bateragarriak diren sintomak baditu:
- Maskara kirurgiko bat emango zaio (2 urtetik gorakoa bada), eta beste bat zaintzen duen helduarentzat gurasoak edo tutoreak iritsi arte.
 - Aireztapen egokia duen eta pedalezko paperontzi bat duen banakako gela batera eramango da, eta bertan botako dira erabili eta botatzeko diren (une horretarako bakarrik erabiliko dira) maskara eta zapiak.
 - Familiari jakinaraziko zaio bere osasun-zentroarekin harremanetan jarri behar dela bere kasua ebaluatu, PCRren eskaera erabaki (24-48 orduko epean egingo da) eta, hala badagokio, etxeko isolamendua adieraz dezan, emaitza jakin arte. Larritasun-zantzurik badu, 112 zenbakira deitu behar da.

Hasierako prozesu honetan eta balizko PCR frogen emaitzak ezagutu arte bere taldeko ikasleek zein irakasleek ikastolan jarraituko dute.

Emaitza jasotzerakoan (BETI OSASUN ZENTRUTIK DATOZEN AGINPIDEAK JARRAITUZ):

- Frogen emaitzak **negatiboak** badira:
 1. Bere taldeko ikasleek eta irakasleek bere jarduera arruntean jarraituko dute.
 2. Froga egin dioten ikaslearen kasuan, Osasun-zentroko profesionalak jarraipena egingo dute eta alta adieraziko dute egokia iruditzen zaien momentuan.
- Frogen emaitzak **positiboak** badira:
 1. Kasu positibo gisa detektatutako ikaslearen guraso edo tutoreek berehala jakinaraziko diote ikastetxeko zuzendaritzari, erreferentziako ESI-arekin (Erakunde Sanitario Integratua) harremanetan jar dadin, eta azken hau lurraldeko Osasun Publikoko Zuzendariordetzako erreferentearekin harremanetan jarriko da.
 2. Kasuen kudeaketan, Osasun Publikoa ikastolarekin koordinatuko da, ikastolako zuzendaritzarekin eta COVID-19rekin lotutako erreferentziako arduradunarekin. Ikastetxe batean kasuak baieztatzen badira, ikastetxeko Zuzendaritza erreferentziako ESI-ko

- koordinatzailearekin harremanetan jarriko da.
3. Kasua baieztatzen bada, **kontaktuaren azterketa** egingo da hezkuntza-ingurunean eta handik kanpo, **kontaktuak identifikatuz, sailkatuz** eta haien **jarraipena eginez**, Osasun Publikoko Zuzendaritzak ezarritakoaren arabera.
 4. Ikastetxean **harreman estuak** identifikatzeko, honako alderdi hauek hartuko dira kontuan:
 - a. Baieztatutako kasua **bizikidetza-talde egonkor** batekoa bada, harreman estutzat hartuko dira **taldeko kide diren pertsona guztiak**.
 - b. Konfirmatutako kasua **ez bada bizikidetza-talde egonkor batekoa**, ikastetxeko harreman estuak identifikatuko dira, ikastetxeko Zuzendaritzarekin eta Prebentzio Zerbitzuko koordinatzailearekin lankidetzan.

ZERBITZU OSAGARRIAK

Jantokia:

- Jangelako taldeak bat etorriko dira eskola orduetako bizikidetza taldeekin.
- Ikasleek jangelan eserleku jakinak izango dituzte zein lekutan esertzen diren jakiteko.

Eskola garraioa:

- Ikasleek autobusean eserleku jakinak edukiko dituzte zein lekutan esertzen diren jakiteko.
- Ikasle guztiek eta gainerako langileek maskara erabiliko dute uneoro. 6 urtetik beherako ikasleentzat ez da derrigorrezkoa erabiltzea, baina, ahal denean, adin horretatik behera erabiltzea ere gomendatzen da.

IKASTURTE HASIERA

Ikasturte-hasiera ahalik eta segurtasun-berme handienekin garatu ahal izateko, eta,aldi berean, Osasun Publikoarekin koordinazio eta kudeaketa ona eraman ahal izateko, pandemiaren transmisioaren egungo egoeran, irailean ikasleak ikastetxeetara era mailakatuan sartzea onetsi da.

Ikasturte hasierako **egutegi eta ordutegiak** hurrengoak dira:

- HH2 irailaren 10ean
- HH3 irailaren 9an
- HH4 irailaren 7an, 09:30etan
- HH5 irailaren 7an 09:00etan
- LH1,2 irailaren 7an 09:30etan
- LH3,4 irailaren 7an 09:00etan
- LH5,6 irailaren 7an 08:30etan
- DBH1 eta 2 irailaren 9an hasiko dira eta DBH3tik Batxilergora irailaren 15ean (aurrerago bidaliko zaizue familia hauei dagokizuen komunikazioa.

*** Iaz LH6 maila San Benito Ikastolan egin zuten ikasleak (matrikulatu berriak ez) irailaren 7an, goizeko 10:00etan, aurreko ikasturteko tutoreekin elkartuko dira agurra gauzatzeko. Horretarako, DBHko patio estalira bideratuko dira, bakoitza bere iazko tutorearengana hurbilduz.**

** Aurtengo ikasturteko LH1, 3 eta 5 mailetako ikasleak, irailaren 7an eta 8an aurreko ikasturteko tutoreekin elkartuko dira agurra gauzatzeko.*

***Ikasturte osoko [ordutegiak](#)**

HH2TIK LH6 BITARTEKO IKASLEEN SARRERA-IRTEERAK

1. Pertsona bakarra joango da ikastolara ikaslearen lagun, eskola-egunaren hasieran edo amaieran, eta, ahal den neurrian, pertsona bera izango da beti.
2. Ikasleen laguntzaileak ez dira Ikastolaren aurreko eremuan sartuko. Maila bakoitzeko laguntzaileentzako itxaron-guneak ezarri dira:

- HH2 eta 3, udaletxe atzeko eskaleretatik jaitsiko dira eta dagokien gelara eramango dituzte haurrak, atetik pasa gabe. HH3Bko familiak (Olatz Aiastui tutorea), kanpo gorriko atzealdean dagoen zubitik jaitsi).
 - HH4ko familiak, kanpo gorriara bideratuko dira, bakoitza dagokion gelaren gunean kokatuko delarik.
 - HH5eko familiak udaletxe atzeko eskaileretatik jaitsiko dira eta ezkerretara markatuko diren guneeetan kokatuko dira.
 - LH1eko laguntzaileak, skate parkearen gainean dagoen plazatxoan kokatuko dira eta ikasleak soilik sartuko dira ikastolaren aurreko eremuan.
 - LH2ko laguntzaileak, skate parkearen inguruan dagoen espaloian kokatuko dira eta ikasleak soilik sartuko dira parke horretan.
 - LH3tik LH6 bitarteko familiei plazan edota frontoi atzean egoteko eskatzen dizuegu (zuen seme/alabari adieraziz non egongo zareten). Astelehen goizetan udaletxe ondoko zabalgunean.
3. Laguntzaile hauek ikastetxean sartu ahal izateko, aldez aurretik hitzordua jarri beharko dute edo horretarako baimena izan beharko dute.
4. Laguntzaileak ezin izango dira inguruan geratu, taldekatzeak eratu.

IKASTURTE HASIERAKO EGUNETAN IKASTOLAKO LANKIDEAK BERTAN IZANGO GAITUZUE LAGUNTZEKO ETA ZALANTZAK ARGITZEKO.


** Ondoren erantsita doan planoan maila hauen sarrera irteerak zein izango diren markatzen dira.*

Azkenik, eta aldi horretan familiei laguntzeko, Hezkuntza Sailak ["COVID-19, familientzako orientabideak"](#) izeneko dokumentu bat argitaratu du, etxean osasun fisikoa eta emozionala zaintzeko gomendio erraz batzuekin.

Hasiera komentatu dugun moduan, egoera berria dia eta guztion artean aurre egingo diogu. Ikastolatik, familia, ikasle, langile nahiz gainontzeko agenteei erantzukizuna eskatu nahi dizuegu, denon artean egoera hau ahalik eta hoberen kudeatu dezagun.

Besterik gabe, edozein zalantzaren aurrean guregana jo dezazuen eskainiz eta hurrengo egunetan ere informazio gehiago bideratuko dizuegula adieraziz, jaso ezazue gure agurra.

IKASTOLA



1

1	HH3Bko sarrera (Olatz Aiastui)
2	HH2 eta 3ko sarrera
3	HH4koen elkargunea
4	HH5koen elkargunea
5	LH1eko familien elkargunea
6	LH1eko ikasleen elkargunea
7	LH2ko familien elkargunea
8	LH2ko ikasleen elkargunea
9	LH3, 4, 5 eta 6ko familien elkargunea
10	LH3 eta 4ko ikasleen elkargunea
11	LH5eko ikasleen elkargunea
12	LH6ko ikasleen elkargunea